

[Portada](#)[Euskal Herria](#)[Mundua](#)[Ekonomia](#)[Ingurumena](#)[Kontsumoa](#)[Formakuntza](#)[Bilatu...](#)

Jakoba Errekondo: Etorkizuna iraunkortasuna eta elkartasunean dago



Elkarriketak - Elkarriketak

2013/02/05

Jakoba Errekondo usurbildarra Zerain dezagun fundazioko arduraduna da, eta Gipuzkoako herri txiki honen garapenean indar guztia jarri du azken urteotan. Baserri mundua ondo ezagutzen du: Usurbilgo Alkartasuna kooperatiban urte askotan murgildu izan da, baserrian bizi da, eta gaur egun Elikadura Burujabetzaren aldeko lanean ari da, hemen eta han.



Gure lurra, gure etorkizuna

soberania alimentaria.tv



Zerainen herri bezala, irautetik bizitzera pasatzea zenuten helburu, zelango ibilbidea egin duzue?

Gure ibilbide honetan, identitatea eta autoestima indartzea izan da lehenengo gauza. Horrek ekarri du komunitatean motorra jartzea, eta pausu hori nahietanahiezkkoa da beti, bakoitzak berea dena herriarena dela ikustarazteko. Identitatea eta autoestimarekin batera, hiru arlo landu dira batez ere: bizitza kalitatea, udalaren esku egon dena batez ere; dinamika soziala kultur etxeak landu duena; eta Zerain dezagun fundazioaren esku dagoena etorkizun sozioekonomikoa lantzea.

Artzantza eta sagarraren inguruko jarduna lehenetsiko dituzue aurrerantzean.

Azken erabakia hori izan da, gure ondarea eta gure dinamika ekonomikoa lotzen dituen delako. Gazta eta sagardoaren mendia. Gure bi produktu nagusiaren sustapenean ari gara, gure paisaia ondoen landu eta babesten dutelako. Gainera ikusten dugu, azken urteotan herrian lanpostuak hortik sortu direla (artzantza eta sagardogintzan), eta aurrerantzean ere sortuko dituelako.

Eta zer da paisaia kulturala?

Paisaia kulturala da gure lurralde osoa, gure aurreko zeraindarrek sortu, diseinatu eta landu dute, eraiki dute; bideak direla, mendiak, basoak, larreak. Den dena gure aurreko herritarrek egindakoa da, eta hori da gure komunitatearen kultura. Inguru aldetik lurralde aberatsa nahi dugu biodibertsitateari dagokionez, eta hori are eta gehiago aberasten dugu kulturaren kontzeptuarekin, eta hor sartzen dira artzaiak, sagardogileak, baserritarrak. Eta hori da gure herriak egin eta garatu duen paisaia, gure paisaia kulturala.

Eta zelan lotzen dituzue Zerainen turismoa, paisaia kulturala eta baserrietako ekoizpenak?

Turismoa da baserriko produktuen erosle onena gurean. Turista Zerainera etortzen da, eta ikusi egiten du gure paisaia, nola zaintzen dugun eta zeinen garrantzitsua den guretzat. Sentsibilizazio batzuk egiten ditugu, baina ez dugu inongo eredu batzuk jarraitu beharrik gure...

bat lan bat ere egiten dugu. ikusi egiten ditu ardiak, artzaiak, larreak, inguruko basoak, gure produktuen denda ikusten du, herri museoa, eta diaporamaren bitartez gure herriaren berri eta sentsibilazioa lantzen dira. Eta turista hori gure produktua baloratzeko prest dago, ez da turista arrunt bat, souvenir baten bila datorrena. Gure produktuek duten balorearen berri badu Zerainera hurbiltzen denak, eta dastatuta eramaten ditu. Eta gure dendaren lema hori da: prezioak balio du.

Eta lurrak ze garrantzia du gaur egun, zuena bezalako herri txiki baten?

Lurra oinarria da. Eta horregatik gure asmoa da piskanaka lurra publikatzea. Herriaren kontzeptua, herri lurrak eta herri lana areagotzen joateko. Batetik basogintzaren inguruko kontzeptua dago, pinudietatik –kalitate txarreko egurra dena batetik, eta bioaniztasunaren ikuspegitik ere txarra dena- bertako baso aberatsetara pasatzeko; kalitatezko egurra produzitzeko ere balioko digu berreskuratutako lurrak; biomasa ere sortu nahi dugulako. Beste alde batetik larreak daude. Artzai gehiago behar ditugu Zerainen, sagardoa egiteko sagasti gehiago behar dugu. Ondorioz lur gehiago behar dugu. Eta horregatik urtero saiatuko gara gero eta lur gehiago herritartzen, herriarenak egiten, publikatzen. Eta ezin baldin bada, bere erabilera bultzatuko dugu fundazioaren bitartez. Lur funtsa sortzeko asmoa daukagu, gure filosofiarekin erabili ahal izateko, nahiz eta batzutan jabegoa pribatua izaten jarraitu.

Lurzaindia ere sortu berri da...

Nik uste dut gu egiten ari garenen bidetik doala, ahizpak direla proiektu hauek. Eta Lurzaindia Euskal Herri osora zabaldu beharreko ekimena dela iruditzen zait, oso interesgarria.

Nekazaritza iraunkorraz hitzaldia eman zuen Euskal Herriko Laborantza Ganbarak Usurbilen, zer iruditzen nekazaritza iraunkorraren inguruan egiten ari diren guztia?

Ni oso ados nago egiten ari diren lan guztiarekin. Eta iruditzen zait gainera, hegoaldean ez bezala han zentsu egokian ari direla lanean. Alde ederreko indarra eta abiadurarekin ari dira. Nekazaritza iraunkorra da bidea, dudarik gabe.

Eta, hemendik aurrera zer?

Elikadura burujabetzaren ikuspegitik, bertako produktuen sustapena, baina ez produktuak bakarrik, baserritarra herri baten parte bezala kontu

Elkarrizketa entzuteko: **Jakoba Errekondo**



BASERRITIK MUNDUA



ELKARRIZKETAK

Eric Holt: "Baserritarras y grupos de consumo han encontrado fórmulas muy interesantes en Euskal Herria"

Eric Holt, director de Food First



Eric, ¿cuales son tus impresiones después de esta visita a Euskal Herria?

Primero de todo tengo que decir que esta es mi cuarta o quinta visita a vuestro pueblo en los últimos 15 años y he notado muchos cambios. Últimamente por la crisis económica que experimenta Europa y sobre todo Iberia, veo que hay una respuesta emergente y nueva en Euskal Herria que yo no he visto en otras partes. Del mismo modo veo mucho interés en la ruralización, el regreso al campo es algo común, no solo por gente que está muy metida en la agricultura sino por jóvenes que no ven otro futuro y piensan que el campo puede ser una